
PRENTSA OHARRA

Aspaldidanik zegoen kultura-estatistika propioa izateko premia larria, Euskal Herriko kultura-espazioaren eremu soziopolitiko bakoitzeko zein Euskal Herri osoko kultura-eskaintzaren eta -eskaeraren jarraipena egiten lagunduko lukeena. Eremu soziopolitiko hori EAEk, Nafarroako Foru Erkidegoak eta Ipar Euskal Herriak osatzen dute.

Hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Planak kultura-praktiken eta kontsumo-ohituren ikerketari ekiteko beharra nabarmendu zuen. Lehen ikerketa hori egina dago jada. Lan handi eta sakona egin ondoren, Behatokiak lehen 2007-2008 *Kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoari buruzko inkesta*-ren emaitzak aurkeztu ditu. Azken batez, txosten hau, Euskal Herri osoko biztanleriaren ohitura eta kontsumo kulturalak neurtzeko tresna baliagarria da oso.

Zentzu honetan, erabaki dugu garrantzizko txosten hau gaur aurkeztea, munduko errealitate kultural desberdinetatik datozen Kultura Behatokiekin gaur eta bihar artean Bilbon burutuko diren II Lan-jardunaldien eremuan. Jardunaldi hauek, Piemonteko, Catalunyako, Quebec-eko Galizako eta Frantziako kultura behatokiekin esperientziak eta ezagutzak partekatzeko aukera emango dute.

Gaur aurkezten dizuegun txosten hau lau liburukitan jaso da, bakoitza lurralde zehatz bati dagokiolarik: Euskadiko Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, Iparraldea eta Euskal Herria. Txostenak EAE osoko kultura-ohituren, -praktiken, -kontsumoen eta itxaropenen irudi zehaztua eskaintzen die, lehen aldiz, kulturari lotutako erakunde eta entitate guztiei, zein jendeari orokorrean.

Baina Euskal Herriko kultura eskaeraren azterketa sakona, bereziki bertoko kulturara eta euskarazko kontsumora lotutako alderdiana, Euskal Autonomia Erkidegoko lur-eremua baino harago doan erronka da; hau da, ezin genion ekin Kulturaren Euskal Behatokitik bakarka.

Zentzu honetan, gaur aurkezten ari garen ikerketa egiten laguntzaile izan dira Kulturaren Euskal Behatokia, Euskal Kultur Erakundea –EKE– eta Eusko Ikaskuntza.

Azken erakunde bi horiek Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikerketak sustatu dituzte, hurrenez hurren.

Aipatu erakundeen lankidetzari esker, lortu izan da aurkeztu den bezalako panoramika garbia, benetazkoa, sakona eta partekatutako ohitura eta kontsumo kulturalen parametroak barne hartzen dituena, elementu homogeneoak gehitzea eta barne alderaketak egitea ahalbidetuz. Baina txostenean kanpo alderaketak jaso dira ere bai; dokumentuak, EB-ko (Eurobarometro 67.1, Eurostat 2007) ohitura eta jarduera kulturalekin zein Estatuarekin parekatzeko aldagaiak barne hartzen ditu, azken kasu honetan 2008ko Kultura-estatistiken Urtekariak jasotzen duen *2006-2007ko Ohitura eta Praktika Kulturalari buruzko Inkesta* oinarritzat hartuz.

Aldez aurreko ikerketa zabal eta dibertsifikatuari, ikertutako hiru lurralde-eremuetatik bakoitzeko argazki partzialei eta kultura-erabilpenen adierazle garrantzitsuenen hautaketa zorrotzari esker lortu da Euskal Herriko eskaeraren ikuspegi kuantitatiboa izatea. Oinarri sendo horrek beste balorazio kualitatibo batzuk behar ditu, aztertzen diren lau lurralde-eremuetan baliagarriak diren sinergia sektorialak, sakontasunezko ikerketak eta garapenak eraikitzeko.

Txostenak, jarduera estatistiko ofizial bihurtzea du xede eta Kulturaren Euskal Behatokiko Estatistika eta Ikerketa Kulturalen Bildumari hasiera ematen dio. Honek, bost urtean behin egingo den estatistika-saila martxan jartzea dakar, herritarren ohitura kulturalen bilakaera ezagutzeko erreferentzia-puntu bezala balio izango duena. Eurostat-ek partaidetza kulturalaz finkatutako irizpideen arabera egiten da ikerketa; hartara, lehendik egindako antzeko beste batzuekin aldera daiteke.

Ohitura eta jarduera kulturalak

Oinarritzko bi kontzeptu sakonago jorratzeko balio izan digu azterketa estatistiko honek: batetik, ohitura kulturalak, hots, herritarren portaera produktu eta zerbitzu kultural batzuekiko; bestetik, jarduera kulturalak, hau da, denbora-epe jakin bateko kultura-kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea. Horrekin batera, jarduera edo zerbitzu kultural jakin batzuek zenbateko arreta edo gogobetetze-maila eragiten duten ere aztertu du ikerketak.

Euskal Herri osoko hamabost urtetik gorako 6.785 laguni egin zaie inkesta. Sexua, adina, hizkuntza-gaitasuna eta bizilekua hartu dira irizpidetzat populazio-multzoak kultura-ondasun eta –zerbitzuen kontsumoaren arabera bereizteko. Inkestak jaso duen datu-multzo handia eta haien interpretazio-aukera guztiak ikusirik, azterketa osagarriak egitekoak gara, talde, sektore edo lurraldeka.


EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA

Ondoren, **2007-2008ko Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko** inkestan lortutako emaitza aipagarrienen lagin bat ikus daiteke. Txostena lau liburukitan jaso da, jasota gera dadin inkesta egin den lau lurraldeen ordezkariak: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, Iparraldea eta Euskal Herria. Inkestan kultura-kontsumoaren egoera jaso da, hainbat esparru kontuan hartuta: aisiarekin lotutako liburuak irakurtzea; liburutegietara joatea; museoetara, galerietara eta erakusketetara joatea; musika kontsumitzea (entzutea, erostea eta hainbat eratako kontzertuetara joatea); zinemara, antzerkira, operara eta dantza- eta bertso-saioetara joatea.

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOA

2007-2008 epealdiko *kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari* buruzko inkestak Euskal Autonomia Erkidegoaren "irudi" hau erakusten du:

- Aisia-liburuak irakurtzeari eta zinemara joateri dagokienez, EAEko emaitzak oso onak dira, bai Europako Batasuneko datuekin alderatuta, bai estatuko datuekin alderatuta.
- Musika-kontzertuetara joateko ohiturari dagokionez, ez dago ia alderik EAEko eta Europako datuen artean.
- Antzerkira eta liburutegietara joateko ohitura hobetu beharreko alderdia da EAEn, Europako datuekin alderatuta, nahiz eta lortutako emaitzak estatukoak baino hobeak diren.



(1) Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia


(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

(3) Iturria: Espainiako ohitura eta jardura kulturalen inkesta 2006-2007, Kultura Ministerioa

Homogeneotasun handia dago EAeko hiru lurralde historikoetako kultura-jardunbideen artean. Dena den, aipagarria da Araban aisia-liburuen irakurketari eta museoetara joateari dagokienez lortutako emaitzak —irakurketan, % 75,2 (Bizkaiko emaitza % 68,7 da, eta Gipuzkoakoa, % 65,5); museoetara joateari dagokionez, emaitza % 45,5 da (Bizkaiko emaitza % 41,3 da, eta Gipuzkoakoa, % 32,6)—. Kontuan hartu behar da Arabako biztanle gehienak hirian bizi direla.

Zentzu horretan, oro har, Arabako biztanleek agertu dute joera handiena aztertutako jardura kultural gehienetarako. Aipatutakoez gainera, lau eta sei puntu gehiago lortu ditu Bizkaiak eta Gipuzkoak baino, hurrenez hurren, zinemara joateari dagokionez (Araba: % 57,3; Bizkaia: % 53,9; Gipuzkoa: % 51,9), eta beste lau puntu gehiago antzerkira joateari dagokionez.

Hiru lurralde historikoak alderatuta, Bizkaia nabarmentzen da Arabaren eta Gipuzkoaren aldean, opera-ikuskizunetara joatearen alorrean; eta Gipuzkoa, musika-kontzertuetara eta dantza-emanaldietara joatearen alorrean.



Irakurketa

Irakurketa-ohiturei dagokienez, EAEko biztanleen % 56k liburu bat irakurri dute, gutxienez, azken hiruhilekoan. Estatuko irakurketa-ohituren batezbestekoarekin (% 42,8) alderatuta, emaitza % 13,2 hobea da.

Herritarren erdiek baino gehiagok (% 54,8k) egunkariak irakurtzen dituzte egunero edo ia egunero, eta horrek estatuko batezbestekotik (% 37,3) 16 puntura eta Europakotik (% 46) 8 puntura jartzen gaitu.

Era berean, eskuarki bi hizkuntzatan irakurtzen duten irakurleen % 35,7k euskarazko liburuak irakurtzen dituzte.

Museoak eta Arte-zentroak


EAEko 10 biztanletik 4 museoren batera joan dira azken urtean —Europako ehunekoaren (% 41) antzekoa da emaitza hori—. Erakusketen eta arte-galerien kasuan, % 21,7ra jaisten da ehunekoa.

Musika eta kontzertuak

Musika da EAEko biztanleen zaletasunik gogokoena, eta jendea mugiarazten duen arlo nagusietako bat da. Musika-kontsumoa handia da etxean musika entzuteari eta kontzertuetara joateari dagokienez: 10 biztanletik 7 (% 73,2) musikaren ohiko kontsumitzaile dira; horietatik gehienak gazteak dira —15 eta 24 urte arteko gazteen % 95 dira kultura-jarduera horren erabiltzaile nagusia—. Biztanleen % 37,7 musika-kontzertuetara joan ohi dira (batez beste, 2 kontzertutara), eta, eskuarki, rock-kontzertuak izan ohi dira.

Halaber, herritar elebidunek musika asko erosten dute. Musika erosten duten herritar elebidunen % 62,5ek aitortzen dute euskal musika erosten dutela.

Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)



Ikus-entzunezkoak

Telebistaren arloari dagokionez, jardunbide homogeneoa dute hiru lurralde historikoetan; egunean, batez beste, 2,4 ordu (150 minutu inguru) ikusten dira, hau da, estatuan baino apur bat gutxiago. 10 ikus-entzule elebidunetik 7k baino gehixeagok ikusten dute euskarazko telebista.

Bestalde, herritarren hiru laurdenek irratia entzuteko ohitura dute, eta lanegunetan egunean 2,5 ordu igarotzen dituzten horretan.

Zinema


EAEko biztanleen % 40k —batez ere gazteek— zinemara joateko ohitura dute, eta, joaten direnen artean, gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino (% 42,2 gizonezkoak dira, eta % 37,9 emakumezkoak). Zinemara joateko ohitura handiagoa da herri handietan, horietan eskaintza zabalagoa izaten delako.

Arte eszenikoak eta bertsolaritza

Arte eszenikoen esparruan, aipatu beharra dago halakoetara joaten diren EAEko biztanleen kopurua estatukoena baino altuagoa dela aztertutako arlo guztietan. Lirikan, zifren arteko desberdintasuna adierazgarria den bitartean (%20,6 EAEn eta %13,3 Espainian), dantzaren kasuan txikiagoa da azaltzen da (%22,9 eta %19,2 hurrenez hurren).

Bertsolaritzaren esparruan, datuak aipagarriak dira: Herritar elebidunen % 18,1 zuzeneko bertso-saio batean (gutxienez) izan dira azken urtean, eta horietatik % 8,7 azken hiruhilekoan. Jarduera horretako jarraitzaileen artean, jarduerarekiko lotura berezia hautematen da, azken hiruhilekoan 2,3 aldiz joan baita jarraitzaile bakoitza saioaren batera. Jarraitzaileen profila honako hau da: gizonezkoak eta, batez ere, gazteak. Jarraitzaile gehien Gipuzkoan ditu, eta hori nabarmenagoa da herri txikietan. Pertsona elebidunen % 67,3 ez dira inoiz edo ia inoiz izan bertso-saio batean.


Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



IPARRALDEA

Iparraldeko herritarren artean, Europako batezbestekotik gorako irakurzaletasuna dago, baina liburutegira joateko ohitura gutxiago dute. Zinema-aretoetara joateari dagokionez, Europako batezbestekotik hiru puntu gora daude Iparraldean, eta Frantziako batezbestekotik zazpi puntu gora. Musika-kontzertuetara eta antzerki-ikusketetara joateko joera Frantziako biztanleenaren antzekoa da.

Musika entzutea, liburuak irakurtzea eta zinemara joatea dira kultura-jarduera nagusiak. Azken urtean, ia hamar pertsonatik bederatzik entzun dute musika, % 74k irakurri dute libururen bat, eta % 54,2 joan dira zinemara.




(1) Iturria: Kultur ohiturak, jarduerak eta kontsumoa Ipar Euskal Herrian 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

(3) Iturria: Mini chiffres clés 2008, Ministère de la Culture et de la Communication.

Oso gutxi aldatzen dira kultura-parametroak Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeen artean (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa). Kontuan hartu behar dugu egoera sozioekonomiko oso desberdineko lurraldeak direla: landa-ingurunea nagusitzen da Zuberoan eta Nafarroa Beherean, eta hiri-ingurunea Lapurdin. Alde nagusiak kontzertu, dantza-emanaldi eta opera-ikusketetara joateko joeran daude. Azken hori pastoralari lotzen badiogu, datuek goia jotzen dute Zuberoan. Gainerako arloetan ez dago alde handirik.



Zuberoan, arlo hauetakoak dira ehunekorik handienak: musika (musika entzutea eta kontzertuetara joatea, batik bat euskal musikakoetara), irakurketa, zinema, dantza-ikuskizunak eta opera (pastoralak). Nafarroa Beherean, berriz, arlo hauetan daude ehunekorik handienak: musika (entzutea, ez hainbeste kontzertuetara joatea), irakurketa eta zinema.



Lapurdin ere musikak, zinemak eta irakurketak dituzte kultura-kontsumoko baliorik handienak, liburutegietara eta museoetara joaten direnen ehunekoak ere handiak izan arren.

Irakurketa

Irakurketa oso zabaldua dago (% 56,4); hilean 2,3 liburu irakurtzen dira batez beste, eta, elebidunen artean, euskarazko argitalpenen irakurketa ere oso zabaldua dago (% 40), Euskal Herriko gainerako probintzietan baino gehiago.

Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, lurraldeka (%)

IPAR EUSKAL HERRIA



Ipar Euskal Herriko biztanleen erdiek baino gehiagok prentsa irakurtzeko ohitura dute, eta hamarretik lauk aldizkariak irakurtzekoa. Liburutegietara joateko ohitura dute % 21ek.

Musika

Ipar Euskal Herrian musikarako joera dute: % 85,3k sarri entzuten dute musika (% 67,3k egunero, eta % 18,2k astero). 25 eta 34 urte arteko biztanleen % 99,1ek sarri entzuten dute musika.

Egunean lau ordu inguru ematen dituzte irratia entzuten, eta 15 eta 25 urte arteko gazteen % 54,1ek, berriz, Internet bidez entzuten dute.

Adin-talde guztietako biztanle elebidunek entzuten dute euskarazko musika. Elebidunen % 96,9k entzuten dute euskarazko musika. Bestalde, musika erosten duten elebidunen erdiek baino gehiagok (% 55,3) euskal musika hautatzen dute. Zuberoan, ehuneko % 77,3raino igotzen da.

Nabarmenezkoa da musika-kontzertuetara (elebidunen % 86,9) eta antzerkira joaten diren pertsonen kopuru handia (elebidunen % 88,8 joan da euskarazko antzezlanen bat ikustera; Lapurdin, % 95,5).

Kultura-jarduera amateurrek


Ipar Euskal Herriko biztanleak bereziki aktiboak eta konprometituak dira kultura-jarduera kolektiboetako parte-hartzeari erreparatuz gero. Dantzaren, musikaren (abesbatzak) eta margolaritzaren inguruko jarduerak dituzte gustuko.

Ipar Euskal Herriko hamar biztanletik lauk kultura-jardueretan parte hartzen dute. Azken urtebetean % 42,7k hartu dute parte kultura-jardueretan. Nafarroa Beherean ia biztanleen erdiek hartu dute parte horrelako jardueretan (% 49,1); Lapurdin, % 42,1ek; eta Zuberoan, berriz, % 38,2k.

NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAK

EAEk bezala, Nafarroako Foru Erkidegoak Europako batezbestekoak gainditzen ditu irakurketaren, musika-kontsumoaren eta zinemaren arloetan. Bai eta liburutegietara joateari dagokionez ere. Ez, ordea, antzerkira joateari dagokionez.

NAFARROAKO eta EUROPAKO kultura-adierezleen alderaketa (%)




(1) Iturria: Nafarroako Foru Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

(3) Iturria: Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta 2006-2007, Kultura Ministerioa

Nafarroako hiriburuan dago kultura-jarduera guztietarako ohitura-mailarik handiena, bertsolaritza- eta dantza-emanaldietara joateko ohitura izan ezik.



Irakurketa

Irakurketa-indizeak altuak dira; nafarren % 58,9k irakurri dute libururen bat azken hiruhilekoan. Hori dela eta, Espainiako batezbestekoa baino 15 puntu gehiago ditu, eta hilean 1,7 liburuko batezbestekoa.

Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten elebidunen % 45,4k adierazi dute euskarazko liburuak irakurri dituztela (beste lurraldeetan baino gehiago).

Musika

Nafarroako biztanleek musikarako zaletasuna ere badute: % 76,1ek maiz entzuten dute musika; asteen 10,2 ordu, batez beste.

Biztanle elebidunen % 66,9k erosten dute euskal musika.

Ikus-entzunezkoak

Telebistaren asteko kontsumoa 17,1 ordukoa da (2,4 ordu lanegunetan), eta biztanle elebidunen % 85ek maiz ikusten dute euskarazko telebista. Lanegunetan, talde horretakoek telebista ikusten ematen duten denboraren % 40 euskarazko telebista ikusten ematen dute.

Arte eszenikoak eta bertsolaritza

Hiru kultura-jarduera horietako (antzerkiko, lirikako eta dantzako) Nafarroako ehunekoak handiagoak dira Espainiakoak baino. Bertsolaritzari dagokionez, biztanle lebidunen % 18,1 joan dira saioen batera azken urtebetean.


EUSKAL HERRIA

Europarekin alderatuta, ondorio hauek atera dira:

Europako batezbestekoak baino pixka bat handiagoak dira Euskal Herrian musika-kontzertuetara (Euskal Herrian % 38,2 eta EBn % 37) eta zinemara (Euskal Herrian % 54,8 eta EBn % 51) joaten direnenak. Euskal Herriko irakurketa-ohituren batezbestekoak ere 27 estatuko Europakoen gainetik daude. EBko biztanleen % 71k irakurri dute libururen bat azken urtebetean, Euskal Herrian, berriz, biztanleen % 74,1ek. Museoetara joaten direnen ehunekoa ere Europakoa baino 2,7 puntu handiagoa da (Euskal Herrian % 43,7 eta Europan % 41).

Eguneroko prentsaren irakurketan, berriz, Euskal Herriko batezbestekoa Europakoa baino 11,1 puntu handiagoa da (Euskal Herrian % 57,1ek irakurtzen dute, eta Europan, berriz, % 46k).

Liburutegietara joaten direnen portzentajea, berriz, handiagoa da Europan (biztanleen % 35) Euskal Herrian baino (% 31,4). Arte eszenikoetan, berriz, Euskal Herrian azken urtebetean ikuskizunen batera joan direnen ehunekoa (% 21,9) Europakoa baino pixka bat txikiagoa da (% 32).



Bestalde, bi parametro interesgarri erreparatuz gero, hau da, adinari eta elebidunen sareko jardueri, ikusten da gazteek Internet erabiltzen dutela kultura-jardueretarako. 15 eta 24 urte arteko hamar gazteek zazpi erabiltzen dute Internet kultura-jardueretarako.

Gainera, Internet erabiltzeko ohitura duten elebidunen erdiek (% 51,3k) euskarazko edukiak erabiltzen dituzte. Web guneak eta dokumentazioa eskuratzen dituzte % 37,4k; musika-edukiak, % 22,2k; blogak eta liburuak irakurri edo azken horiek deskargatzen dituzte % 7,2k; eta foroetan sartzten dira % 6,1.

Euskal Herriko eremu soziopolitikoaren barne-konparaketa eginez gero, agerian gelditzen da Ipar Euskal Herriak portzentaje handiagoa duela musikan, irakurketan eta irratia entzutean; Nafarroak, kontzertuetan, zineman eta liburutegietan; eta EAEk, berriz, museoetan eta prentsaren irakurketan.

